

MENTORETZA SOZIALA

*Erronkak Euskal Herrian
2030 Agendarako tresna
Erakundeen topaketa*



MENTORETZA SOZIALA ETA 2030 AGENDA:
LOKARRIAK ESTUTZEN





Proiektua eta ideia: **Baketik**
Argitalpenaren egilea: **Maidar Maraña (Baketik)**
www.baketik.org
info@baketik.org

Diseinua: **Julen Cano Linazasoro**
Itzulpena: **Ibon Plazaola Okariz**

SARRERA

Gizarte hobe baten alde lan egitea ez da oraingo kontua: duela milaka urtetik, gure komunitatean gizon-emakume asko eta asko egon dira beren denboraren, energiaren eta bizitzaren zati bat ematearen alde egin dutenak, gizarte kohesionatuagoak sortzeko.

Apustu hori mamitzeko baliabide aproposenei buruzko ulerkerak, ordea, aldatu egin dira denborarekin. Halakoak sarritan modatzat edo formula iragankortzat jotzen diren arren, beren bizitzaren zati bat gizarte kohesionatuago bat lortzearen alde borrokatzen direnek, oro har, ahalegin guztiak egiten dituzte etengabe ugaritzen eta aldatzen ari diren desfioei aurre egiteko.

Gaur egun, Mentoretza Soziala eta 2030 Agenda dira baliabide horietako bi, eta biak ere bat datoz xede batzuetan: bietan dabiltzanek uste dute denontzako mundu hobe bat lortzearen alde lan egitera beharturik gaudela, inor ezin dugula atzean utzi —hala dio 2030 Agenda ezagunaren eta Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen goiburuak—, eta, Mentoretza Sozialak defendatzen duen bezala, pertsona orok, zaugarria izan zein ez, bere potentzial eta gaitasun guztiak landu ditzakeela baldin eta testuinguru soziala egokia bada.



Horretaz konbentziturik, 2023ko irailaren 12an Tolosan (Gipuzkoa) elkartzea erabaki genuen, Mentoretza Sozialaz eta 2030 Agendaz hausnartzeko: jardunaldi hartan, 12 gizarte-erakundetako 26 lagunek argi eta garbi adierazi zuten taldean lan egiteak erabateko zentzua duela lan-formula eta -proposamen efikazak mamitzeko.

Baketik planteatutako dinamiken bidez, pertsona horiek elkarrekin eraiki ahal izan zituzten argitalpen honetan biltzen diren ideiak¹.

Horrenbestez, Baketiken eta Espainiako Estatuko Mentoretza Sozialaren Koordinakundeko beste elkarte batzuen apustua jasotzen da orri hauetan, eta zera defendatzen: Mentoretza Sozialaren arloko ekintzak eta proiektuak lagungarri gertatzen ari direla Garapen Jasangarrirako Helburuak bete eta inplementatzeko. Bakoitzak bere rolari eutsiz, baina eragile guztien arteko batasunak bakarrik emango digu desberdintasun gutxiagoko mundu bat lortzeko bidean aurrera egiteko modua.

¹ Argitalpen honetan Baketiken iritzi eta ideiak baino ez dira jasotzen. Jardunaldian parte hartu zuten pertsonen eta entitateen ez daukate zertan bat etorri datozen orrietan adierazten denarekin.

Baketik
2023ko azaroa

2030 AGENDA: ESPARRU ERABILGARRIA?

Azken urteotan geroz eta gehiago hitz egiten da 2030 Agendari buruz, batez ere esparru instituzionaletan edo komunikabide batzuetan. 2015ean adostutako nazioarteko hitzarmen handi honek, 15 urtetan 169 helburu lortzeko xedea duena, eragile ezberdinen begirada erakartzea lortu du; batzuetan hau defendatzeko, eta besteetan, bere balioa zalantzan jartzeko. Bi ikuspegietan aurkituko ditugu norberaren usteetatik partekatzeko eta gezurtatzeko moduko gaiak, baina ziurra da 2030 Agenda, nazioarteko konpromiso gisa (eta ondoren politika nazionaletan eta tokiko politiketan lurreratuta), hemen dela, eta urte batzuk gurekin gelditzeko etorri dela, gutxienez.

2030 Agenda zer den ondo ulertzeko, bere dimentsio errealei begiratzea garrantzitsua dela uste dugu: Agenda hau bide bat besterik ez da, ibilbide bat, lehentasunezko zat hartuko diren aukera batzuk (beste hainbaten artean) markatzen dituena. Hala, urratsak sortzen jartzen du arreta, ez hainbeste helmugetan.

Agenda hau nazioartekoa da nabarmenki, eta logikoa da jende askok urruti sentitzea horregatik. Baina egia da baita ere Agenda hau errealitate ezberdinetan aplikatzeko moduan sortu dela, eta horrek aukera ematen duela agenda gure errealitateetara egokitzeko. Beraz, bai, mundu-agenda bat da, baina oso arazo lokalei ere erantzun diezaieke, harekin lan egiten den moduaren arabera.

Hala ere, 2030 Agenda bere osotasunean neurtzeko, bereziki ulertu behar dugu adostasunezko testua dela. Testu hau 193 herrialdetako ordezkariak onartzeko modukoa izan behar zuen, ideologia, begirada eta ulermen oso ezberdineko eta are kontrajarrietako pertsonak adosteko modukoa. Eta, beraz, gutxienekoen testua da, gutxieneko izendatzaile komuna. Baina, hori dela eta, lorpen handi bat ere bada, irizpide honetan oinarritua: adostasuna sortzea eta guztien konpromisoa bermatzea.

Begirada dikotomikoek edo bertsio bakar baten inposaketak oraindik pisu handia duen gizarte honetan, askotan zaila egiten zaigu adostasunez onartutakoaren balioa ulertzea, bira eta bira askoren ondoren lortu den horren indarra, zubiak sustatzen eta erkide duguna baloratzen laguntzen duten elementuen beharra.

Bistan da gutako bakoitzak Agenda diseinatu ahal izango balu, ehunka mila agenda desberdin izango genituzkeela. Baina 2030 Agenda honek, besteak beste, esparru erabilgarria eskaintzen du oinez hasi eta aldatu behar duguna aldatzeko.

Galdera da: eta 2030 Agendarik ez balego? Bada, oso litekeena da, halakorik ez balego, asmatu eta nazioarteko adostasun handiena lortzeko borroka egin behar izatea, gure politikak benetako garapen jasagarrian oinarrituko direla bermatzeko.

2030 Agenda ez da arazo guztien irtenbidea. Beste tresna bat besterik ez da, gure eskura dugun tresna bat, eta, zorionez edo ez, hainbat erakunde, eragile eta komunitatek partekatzen dute. Esan dezagun 2030 Agendak hizkuntza komun gisa balio digula: bakoitzak (erakunde, gizarte zibil edo beste eragile batzuk) identifikatzen gaituenari begiratuko diogu, baina posible da gure errealitateari egokituz gero, bakoitzak 2030 Agenda barnekoa baliozkotu, berretsi edo berritu ahal izatea.

MENTORETZA SOZIALA: BIDEA IREKITZEN

Gure gizarteak askotarikoak dira, oso, baina baita desberdinak ere: begia non jarri, desberdintasunak eta bereizkeriak nonahi aurkitzen ditugu beti. Generoa, jatorria, adina eta beste ezaugarri batzuen ondorioz, gizon-emakume guztiek ez dituzte aukera berdinak. Pertsona askok ez daukate bizimodu betea lortzerik, aurrez aurre dituzten zailtasunen poderioz.

Horrek distortsioak sortzen ditu gure komunitateetan: gizarte kohesionatuago bat eraikitzen laguntzen ez diguten tentsio, gaitzuste eta egoerak, alegia.

Ziurgabetasun horien aurrean jokatzeko molde bat da mentoretza soziala, eta hauxe du oinarri:

“boluntario (mentore) aritzen diren pertsonen arteko harremanak sustatzea, eskusio-arriskuan daudenei (mentoretzapean dauden pertsoneri) laguntzeko”².

Mentoretzapean dagoen pertsonaren eta mentorearen arteko tandem hori da giltzarria kontu honetan guztian, baina, haien arteko harremana ona dela bermatzeko, etengabe jaso behar dute beren inguruko profesionalen babesa. Hortxe gaude, hain zuzen, mentoretza sozialeko proiektuak bultzatzen ditugun gizarte-erakundeak.



² Mentoretza Sozialaren Koordinakundeak 2021. urtean egindako adierazpena: <https://www.mentoriasocial.org/wp-content/uploads/2022/02/Declaracio%CC%81n-de-la-CMS.pdf>

Harreman mota horiek bakarrak dira, tartean dauden pertsonak ere bakarrak diren bezala, baina ezaugarri batzuk berberak dituzte denek:

- Bestearen alde konprometitu beharra dakarte hasieratik.
- Konfiantzan eta errespetuan oinarriturik eraikitzen dira (bakoitzaren erritmoa aintzat hartuta).
- Lotura pertsonal bat sortuz joaten dira, bakoitzaren erritmoa aintzat hartuta.
- Harreman egonkorak dira, iraupen luzekoak.

Konfiantza eta lotura horren eraikuntza, beraz, prozesu bat da, baina gorabeherak dituenez, gizarte-taldeen etengabeko babesa behar du.

Garrantzitsua da, halaber, ulertzea mentoretzapean dagoen pertsona dela protagonista, inolako zalantzarik gabe: pertsona hori zaugarria dela, eta horregatik parte hartzen duela programan eta harremanean, mentoretza-harremanak egoera hori aldatzen eta pertsona horren garapen sozial eta pertsonala sustatzen lagundu dezakeelako.

Gaikuntza- eta prestakuntza-lana ere laguntza profesionalaren parte da, eta mentore gisa esku hartzen duten boluntarioek paternalismorik eta dependentziarik sortu gabe eta mentoretzapean dauden pertsonak ahalduntzeko moduan jokatzen dutela bermatzea da horren asmoa.

Mentore diharduenak ere, bistan denez, lortzen du etekina, pertsona gisa garatzen baita, eta bere egunerokoarekin zerikusirik ez duten errealitateak ezagutzen baititu. Hortaz, prozesuak bi aldeei egiten die mesede, eta bi aldeek ikasten dute.

Euskal Herrian, mentoretza sozialean oinarritutako hainbat proiektu daude martxan gaur egun: nerabe eta hurrekin, bertakoekin nahiz beste jatorri batzuetako pertsonekin lan egiten duten mentoreak daude gure artean, bai eta beste emakume batzuen mentore diren emakumeak ere, besteak beste. Tartean daudenak gizarte-erakundeetako profesionalak dira, unibertsitateetakoak, instituzio publikoen laguntza dutenak eta laguntzarik gabe aritzen direnak... Mentoretza sozialaren alde apustu egiten duten pertsonen multzoa hazi eta hazi ari da, eta den-denok ari gara lanean, bai halako harremanetan protagonista direnak eta bai laguntzaile gisa aritzen garenak, gaur egungoaz bestelako mundu bat eraikitzeko.

BIDEA URRATZEN: MENTORETZA SOZIALA ETA 2030 AGENDA

2030 Agendari eta Mentoretza Sozialari gaingiroki erreparatuz gero, garbi dago bien artean lotuneak eta elkarguneak daudela.

Nazio Batuen esanetan, 2030 Agendak "herrialde eta gizarteei aukera ematen die inor atzean utzi gabe denen bizitza hobetzeko bideari ekiteko"³. Labur esanda, "mundu osoan jendearen bizimodua eta etorkizuna hobetzea" da Agenda horren asmoa⁴.

Bestalde, Mentoretza Sozialaren arabera, "gaur egungo sistema sozioekonomiko globalizatuak desberdintasunak sortzen ditu, eta, beraz, ez dago aukera-ekitaterik biztanle-taldeen artean". Horiek horrela, mentoretzak eta mentoretza-harremanek "hauxe dute helburu: berdintasunaren alde lan egitea (...). Mentoretza justizia sozialaren zerbitzura dagoen baliabide efikaz eta berritzailea da"⁵.

Hala eta guztiz ere, bi baliabide horietako bat ere ez da baliagarri berez. Mentoretza sozialeko proiektuak sustatzen ditugunok uste osoa dugu harreman mota horiek aldaketarako sekulako ahala dutela, baina badakigu, orobat, egiturak eta politika publikoak aldatzearen alde egin beharra dagoela, irmo, berdintasunera iristeko gai izango bagara. Eta horixe da, hain zuzen, 2030 Agenda: politika publikoen alorrean hartutako konpromiso bat, partziala dela ere badakiguna, tartean diren estatuek, gaur egungo betetze- eta inplementatze-erritmoan, ezin bete ditzaketelako beren gain hartutako helburuak. Gainera, Agenda hori bere osotasunean eta benetan beteko bagenu ere, ez ginateke gai izango ate-joka dauzkagun erronka guztiei eta bakoitzari aurre egiteko, egunetik egunera erronka berriak sortzen baitira.

Laburbilduz, era askotako tresnak, formulak, mekanismoak eta bideak behar ditugu, desberdintasun orokortuari aurre egiten jarraitu eta gizarte aktibo eta partizipatiboagoak sortuko baditugu.

Euskal Herrian mentoretza sozialean lan egiten dugun eragileon ustez, ordea, baliabide horren eta 2030 Agendaren arteko loturak josteke daude oraindik: lotura horiek areago estutzea falta da, eta bai gure entitateek eta bai instituzio publikoek eragin-gune horretan modu kontzientean lan egitea ere bai.

Mentoretza Sozialari eta 2030 Agendari buruzko topaketan parte hartu zuten pertsona guztiek ez zuten Garapen Jasangarrirako 17 Helburuen berri, eta batzuek ez zekiten beren proiektuak helburu horiei loturik ote zeuden. "Urruti" daudela: hori izan zen sentrazio orokorra. Bestalde, instituzioetako pertsona guztiek ere ez dute ondo ulertzen mentoretza soziala zertan zaien lagungarri politika publikoei.

³ <https://unric.org/es/agenda-2030/>

⁴ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/development-agenda/>

⁵ Mentoretza Sozialaren Koordinakundeak 2021. urtean egindako adierazpena.

MENTORETZA SOZIALA ETA 2030 AGENDA: BATA BESTEARI NOLA LOTU?

Ikusi dugu Mentoretza Sozialak eta 2030 Agendak berberak dituztela oinarrietako batzuk, eta desberdintasun gutxiagoko gizarte justuago baten zerbitzura daudela bi baliabideak. Baina, zehatzago hitz eginda, zer-nolako ekarpena egiten diote mentoretza sozialeko harremanek 2030 Agendaren inplementazioari?

Horretaz kontsultatu zietelarik, beren mentoretza-proiektuak Garapen Jasangarrirako Helburuetako zeinetan eragiten ari ziren ikertuko zutela erabaki zuten Euskal Herriko entitateek, eta hauxe izan zen ondorioa:



LEHEN MAILAKO ERAGINA EDO ERAGIN NAGUSIA

Mentoretza sozialeko harremanek eragin argi eta zalantzarik gabea dute bi alderditan: batetik, arrisku sozialeko egoerei lotutako osasun mentaleko arazoek prebentziorako formulak dira (3. GJHa); bestetik, mentoretza sozialeko harremanek aurre egiten diete gure gizarteetako egiturazko desberdintasunei (10. GJHa):

3. GJHA. GUZTIONTZAT ETA ADIN GUZTIETAN BIZIMODU OSASUNGARRIA BERMATZEA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA


3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



- Mentoretza sozialeko harremanek onura nabarmenak eragiten dituzte parte hartzen dutenen ongizate psikosozialean.
- Ongizate horrek mentoretzapean dagoen pertsonari egiten dio mesede bereziki, baina boluntarioek ere lortzen dituzte onura psikosozialak.
- Sarritan desberdintasun-iturri diren bakardadearen eta gizarte-isolamenduaren aurkako borrokaren eredu nabarmenak dira harreman mota hauek.
- Harremanak izateko molde berriak sortzearen aldeko apustua, desberdintasunek gertu izan ohi dituzten indarkeriaren eta tentsioaren aurka.
- Entzuten eta laguntzen dizun norbait ondoan izateak onarpena dakar, eta horrek autokonfiantza, ongizatea eta autoestimua eragiten dizkio mentoretzapean dagoen pertsonari.
- Ohitura osasungarriak ere eragiten dituzte maiz, topaketetan planteatzen diren plan eta proposamenen bitartez.
- Laburbilduz, ondoez psikosoziala hobetzen edo hura prebenitzen laguntzen dute, gizarte-arloan modu eraginkorrean laguntzen duten harremanen bitartez.
- Mentoretza sozialeko harremanek lagunduta sentitzeko eskubidea aitortzen diete pertsonari.

10. GJHA. HERRIALDE BAKOITZEAN ETA HERRIALDEEN ARTEAN DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA

10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



- Mentoretzapean dauden pertsonak askotarikoak dira, baina errealitate bera bizi dute denek, hau da, denak dira biztanle-talde zaurgarriaren parte.
- Mentoretza-harremanek modu espezifikoan lantzen dute desberdintasun-egoeran egote hori.
- Aukerak sortzen dituzte, eta gizarte-, kultura- eta aisia-baliabideak jartzen dituzte lehenago halakorik nekez lortu zezaketenen eskura.
- Aldez aurretik hortxe zeuden errealitateei egiten diete aurre harreman hauek, eta eskusio-arriskuan nahiz ezegonkortasun-egoeran daudenak ahalduntzeko prozesuak abiarazten dituzte.
- Begirada aldatzen eta aurreiritziak gutxitzen ere laguntzen dute harreman hauek.
- Mentoretza sozialak arreta bereziz egiten du lan laguntza-saioetan botere-harremanik ez sortzeko eta partaidetza aktibo eta eraldatzailea sustatzeko.
- Partaidetza soziala funtsezkoa da mentoretza sozialean (11. GJHan ere garrantzi handia du).
- Laburbilduz, harreman hauek ikuspegia aldarazten dute, ustez dagokienaz bestelako rola hartzeko aukera ematen diete pertsonai, eta aldatzeko eta ahalduntzeko bidea irekitzen dute.
- Hala, aukera-berdintasunen alde egiten du lan mentoretzak.

BIGARREN MAILAKO ERAGINA

Aurreko bi helburuak lehen mailakotzat jo baziren, hori horrela izan zen denak ados jarri zirelako gaur egun Euskal Herrian martxan dauden mentoretza sozialeko proiektu guzti-guztietan dutela eragina.

Bi horiekin batera, beste hiru ere identifikatu ziren, proiektuetako batzuetan eragin nabarmena dutenak:

5. GJHA. GENERO-BERDINTASUNA LORTZEA ETA EMAKUME NAHIZ NESKATO GUZTIAK AHALDUNTZEA

5 GENERO- BERDINTASUNA



- Genero-berdintasuna oinarri-oinarrizkoa da mentoretza-proiektu batzuetan, batez ere emakumeak ahalduzaren eta emakumeek zuzenean parte hartzearen alde apustu egiten dutenetan.
- Gainera, mentoretza sozialeko proiektu guztiek gutxi-asko argi dute beharrezkoa dela gure gizartean —eta baita harreman hauetan boluntario aritzen direnen artean ere— genero-desberdintasunekin lotuta gertatzen diren arazo, jarrera eta jokabideei heltzea.
- Prestakuntzak, hausnarketek eta jarduera espezifikoek genero-estereotipo eta -rolak desegiten laguntzen dute.
- Neskek eta emakumeek mentoretzan parte hartzeak ahalduzaren-prozesuak jartzen ditu martxan.
- Gainera, ezinbesteko zaigu planteatzea mentoretza sozialeko harremanak zaintza-harreman ere badirela; zehatz esatera, zaintza sozialak dira, eta hori ere 5. GJHaren xedeetako bat da.

4. GJHA. GUZTIONTZAKO KALITATEZKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA NAHIZ BIDEZKOA BERMATZEA ETA ETENGABEKO IKASKUNTZARAKO AUKERAK BULTZATZEA

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



- Mentoretzako harremanak ez dira, per se, hezkuntza-prozesuak, baina aukera berriak sortzen dituzte, eta hezkuntza kalitatezkoa izan dadin lortzen lagundu dezakete.
- Sarritan, harremanek aisialdirako guneak eta gune sozial eta kulturalak jartzen dituzte lehenago halakorik nekez lor zezaketenen eta eskusio-egoeran daudenen eskura.
- Harreman mota hauek eragiten duten ongizate psikosozial eta emozionala oso lagungarria izaten da sarritan mentoretzapean dauden neska-mutilen hezkuntza-prozesuak hobetzeko.
- Ohitura osasungarri eta jasangarriak ere sustatzen dituzte harreman hauetako batzuek, eta hori ere oinarri-oinarrizkoa da GJHaren xede guztietan.

1. GJHA. POBREZIA MOTA GUZTIAK DESAGERTZEA MUNDU OSOAN

1 POBREZIAREN AMAIERA



- Mentoretza sozialak ez du mendekotasun-harremanik sustatzen, eta, aitzitik, arriskuan dauden pertsonak ahalduz dituzte, beren garapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko aukerak areagotzen dituen gero.
- Harreman mota hauek, sarritan, egoera ekonomiko txarrean edo pobrezia-egoera larri samarrean daudenengan du eragina.
- Programa hauetan parte hartzen dutenen baldintza sozioekonomikoak zeharka hobetzeko modukoak diren testuinguruetan eragiten dituzte ondorio onak ahalduz dituzte eta garapenak.
- Jendearen aukerak areagotzea da harreman mota hauen ondoren identifikatu ohi diren emaitzetako bat.
- Mentoretza sozialeko proiektuek, halakoak sustatzen dituzten entitateen bidez, iturri publiko zein pribatuetatik iristen diren baliabideak mobilizatzen dituzte, eta denak ere gizarte-ekimenetan erabiltzen dira.

ZEHARKAKO ERAGINA

Mentoretza sozialeko proiektuetan parte hartzen dugunon arteko oinarrizko beste adostasunetako bat hauxe da: gure ekiteak gauzak aldatzen dituztela zeharka, eta funtsezko garapen-eragile garelako gure gizarteetan. Hortaz, ukazina da harreman mota hauetan parte hartzen dutenen lanak eragina duela 16. GJHan eta 17. GJHan:

16. GJHA. GIZARTE JUSTUAK, BAKETSUAK ETA INKLUSIBOAK SUSTATZEA

16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK



- Mentoretza sozialak ikusgarri egiten ditu gure komunitateko desberdintasun eta injustiziak.
- Harreman horizontalak eta gure inguruan oro har ikusten ditugunak baino harreman inklusiboagoak sustatzen ditu.
- Mentoretza sozialeko proiektuek argi egiten dute bizikidetzaren alde.
- Zenbait balio sozial sustatzen eta defendatzen dituzte, hala nola partaidetza, berdintasuna eta kohesioa.
- Mentoretza sozialeko harreman-formulek bestelako interakzioak sortzen eta indarkeria sozial handiagoak prebenitzen dituzte, eta bizikidetzaren bultzatzen dute.

17. GJHA. GARAPEN JASANGARRIRAKO MUNDUKO ALIANTZA SENDOTZEA

17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANZAK



- Eragileek garapen sozialaren alde egiteko elkarren artean josten dituzten aliantzak dira mentoretza-harremanak.
- Tartean protagonista gisa daudenak pertsona normalak dira.
- Proiektuak sustatzen dituzten gizarte-taldeak ere batzen dira.
- Eta erakunde publikoek eta gobernuek ere ematen dute beren babes eta laguntza ekonomikoa.
- Zenbaitetan, entitate pribatu eta enpresek ere laguntzen dute.
- Helburu beraren aldeko interakzioaren eta aliantzaren eredu da, argi eta garbi, mentoretza soziala.
- Gure gizarteetan denetarikoa eragileak daude (instituzionalak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak...). Sarritan, ordea, ahaztu egiten zaigu mapa horri beste eragile eraldatzaile bat gehitzea: boluntarioak, —mentoretza sozialeko harremanetako protagonistak, adibidez—.
- Boluntarioek konpromiso sozial moduko bat hartzen dute beren gain, eta gure inguruan beharrezkoak diren aldaketak egitearen alde egiten dute apustu.
- Beraz, boluntarioak ezinbesteko eragileak dira portaera eta jarrera solidarioak sustatzeko eta jendea mobilizatzeko, nor bere ideien alde borrokatu dadin. Geure burua non ikusi izan dezagun, boluntariora ispilu ezinbestekoa da.

ONDORIOAK ETA ETORKIZUNERAKO URRATSAK

Mentoretza Sozialak eta 2030 Agendak bata bestetik urrun dauden arloak ziruditen, baina, ikusi dugun bezala, errealitate ugarritan bat datoz; esaterako, bi ideia hauetan: batetik, bizi garen mundu honetan desberdintasunak eta injustiziak daudela; bestetik, behar beste eragile erakarri behar ditugula gure artera, errealitate hori aldatzeko gai izango bagara.

Zalantza izpirik gabe, mentoretza soziala hasita dago jada lanean garapenerako nazioarteko Agendan jasotzen diren erronketako batzuei aurre egiteko formulak inplementatzeko. Bere egunerokoan, pertsonak eta tokian tokikoa ardatz harturik, mentoretza sozialak formula sozial berriak aldeztu ditu: partaidetzara eta konpromisora erakartzen ditu gure gizarteetako pertsona oso desberdinak, inertziak hausten ditu, eta ezarritako rola aldarazten.

Labur esanda, mentoretza-harremanetan parte hartzen duten boluntarioak eta mentoretzapean dauden pertsonak aldaketa adierazgarriak egiten ari dira, Agendako funtsezko alderdi askotan eragina dutenak: beren apustuak desberdintasunak hausten eta aurrez aurre zailtasun gehien dituztenen aukerak zabaltzen ditu. Aldi berean, gizarte osoa konprometitzea ere ekarri du mentoretzak; izan ere, beren eskubideak aitorturik daudela ikusten dutenek argi dute komunitateko gainerako kideak babestearen alde apustu egin behar dugula. Eragile liderrak dira, Garapen Jasangarrirako 10. Helburuaren barnean aipatzen diren desberdintasunei aurre egiten dietenak.

Harreman mota hauek ongizate psikosoziala eragiten diete programan parte hartzen dutenei: etengabe elkarrekin egoteak, interakzioek eta elkarrenganako konfiantzak lokarri sozialak estutzen dituzte, gure inguruan hain errotuta dagoen bakardadeari aurre egiten diete eta, harreman emozional osasungarrien bitartez, buruko osasun-arazoak prebenitzen dituzte. Mentoretza-harremanek mesede egiten diote, halaber, osasuna ardatz duen 3. GJHari.

Agendako beste erronka batzuk ere aintzat hartzen dira, hala nola kalitatezko hezkuntza (4. GJH), harremanek aisialdia eta ikasteko aukerak areagotzen dituztenez gero. Genero-erronka eta -desberdintasunei ere heltzen zaie (5. GJH), baina etorkizunean lanketa sakonagoa beharko dutela jakinda. Partaideen egoera sozioekonomikoa ere aldatu egin daiteke denborarekin, mentoretza-harremanek ahaldundu egiten baitute (1. GJH).

Mentoreek eta mentoretzapean daudenek harreman sozialak izateko molde berriak sortzen dituzte, gure komunitateko injustiziei desafia joz, eta bestelako balio eta elkarguneak sortzearen alde egiten dute apustu (16. GJH). Mentoretza sozialeko harremanek lagunduta sentitzeko eskubidea aitortzen diete pertsonari. Ildo horretan, gainera, mentoretza sozialeko proiektuak bultzatzen dituzten erakundeek, oro har, eragin soziala eta politikoa ere bilatzen dute, gizarte baketsuak, inklusiboak eta inplikatuak sustatzea helburu duten komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainen bidez. Horien adibide da Mentoretza Sozialeko Koordinakundeak aurtengo urriaren 27an Mentoreen Egunean egin duen kanpaina. Kanpaina horren helburua da hainbat errealitateri buruz kontzientziaztea eta desberdintasunak murriztea; Horretarako pertsonak lagunduta sentitzeko duten eskubidea aitortzen duten politika publikoak eskatu dituzte.

Entidades de mentoría social reclaman unas políticas públicas que reconozcan el derecho de las personas a sentirse acompañadas en el Día de las Personas Mentoras

Lo hacen este 27 de octubre, reivindicando el papel de la mentoría social como un modelo de alto impacto que, en 2022, ha favorecido la inclusión y la igualdad de oportunidades de más de 2700 personas en situación de vulnerabilidad



Gizarte-entitateek, mentoretza sozialeko beren proiektu-proposamenen bidez, erakunde publikoen eta enpresa batzuen arreta erakartzea lortzen dute, eta, hala, langintza sozial horretara bideratzen dute dirua (17. GJH).

Hala eta guztiz ere, hasieran planteatu dugun bezala, Mentoretza Sozialaren eta 2030 Agendaren arteko sinergia adierazgarri hori ez da beti merezi bezain ezaguna eta onartua, ez gizarte-entitateen aldetik eta ez erakundeen aldetik ere. Bada garaia guk ere elkarri laguntzeko ahalik eta harreman onenak sortzen eta eragile guztien partaidetzak eragindako aldaketak ikusgarri egiten ikas dezagun.

Laburbilduz, Mentoretza Soziala eta 2030 Agenda bat datoz zenbait oinarri eta formulatan, eta erronka sozial adierazgarrienei aurre egitea dute helburu. Elkar berrelikatu dezaketen eta elkar berrelikatu behar duten baliabideak dira biak ere.

I. ERANSKINA

Jardunaldian parte hartu zuten entitateen zerrenda

ERAKUNDEA	MENTORETZA SOZIALA PROIEKTUA	LURRALDEA	LAN-EREMUA
Baketik	Izeba Proiektua	Gipuzkoa	Haur eta nerabe tutelatuak
SOS Arrazkeria	Urretxindorra	Gipuzkoa	Haur migratzaileak
SOS Arrazkeria	Izan Harrera	Gipuzkoa	Errefuxiatuak
Zehar Errefuxiatuekin	Urretxindorra	Araba	Haur migratzaileak
Ellacuría Fundazioa	Urretxindorra	Bizkaia	Haur migratzaileak
Pertsonalde		Bizkaia	Bakarrik dauden gazte migratzaileak
Zabalbideak-Landalan	Proyecto mentoría	Bizkaia	Gazte tutelatu ohiak
Dones Mentores-emakume mentoreak	Emakume mentoreak	EAE	Genero indarkeria jasan duten emakumeak; mentoretza soziala genero ikuspegiarekin
UPNA Nafarroako Unibertsitate Publikoa	Urretxindorra	Nafarroa	Haur migratzaileak
Fundación Adsis	Proyecto Enlace	Nafarroa	18 eta 23 urte bitarteko gazteak autonomia-prozesuetan. Guraso bakarreko etxeetako emakume arduradunak, seme-alabak beren kargura bakarrik dituztenak. Oro har, migratzaileak.
Ilundain Fundazioa	CAMINANDOS	Nafarroa	Gazte tutelatu ohiak
CMS - Mentoretza sozialeko Koordinakundea	2. mailako erakundea	Estatu mailakoa	Hainbat

MENTORETZA SOZIALA

*Erronkak Euskal Herrian
2030 Agendarako tresna
Erakundeen topaketa*



MENTORETZA SOZIALA
ETA 2030 AGENDA:
LOKARRIAK ESTUTZEN